

1941eko urriaren 31n, Mount Rushmore kolosala inauguratu zuten AEBetako Hego Dakotan, Black Hills mendien bihotzean. Washington, Jefferson, Roosevelt eta Lincoln presidenteak irudikatu zituen granitozko horma itzel batean, nazio baten sorrera eta garapenari gorazarre egin asmoz. Zazpi urte geroago, 20 kilometrora beste gogo bati erantzunez, Crazy Horse memoriala eraikitzeko lanei hasiera eman zieten, Thunderhead mendia aurrenekoz ezandaraziz. Erreserbetara indarrez mugiarazi arte, muino haien inguruan bizi izan ziren jatorrizko herrien omenezko ekimena da bigarren hau. Ezagutuko dugu Sioux nazioaren memoria eta kultura bizirik mantendu nahi dituen egitasmoa.



# HAITZETAN ZIZELKATUTAKO KONTAKETA KONTRAJARRIAK

 IGONE MARIEZKURRENA  IRANTZU PASTOR

**N**ire buruzagikideek eta nik neuk nahi genuke gizon zuriek jakitea azal gorridunok ere baditugula heroi handiak. Aspaldi erail zuten gerlari baten burua taila dezakeen eskultore baten bila gabiltza (...) Mesedez, idatzi ahalik eta lasterren, gai honekin laguntzerik duzun ala ez jakinarazteko". 1939ko azaroaren 7an, *Standing Bear* lakota tribu-buruak determinazioz idatziriko eskutitza helarazi zion jatorri poloniarreko Korczak Ziolkowski eskultoreari.

Ordurako, Keystone hiritik gertu, 400 beharginez (tartean Ziolkowski bera) osaturiko talde batek 12 urte zeramatzan granitozko eskultura monumental batean AEBetako historiaren aurreneko mende eta erdia beren kontakizuna zizelkatzen. Ideia Doane Robinson abokatu eta historialariari bururatu zitzaion. Turismoa erakarri nahi ei zuen Hego Dakotako hego-mendebaldeko bazter honetara, eta Gutzon Borglum artista daniar-estatubatuarri agindu zion enkargua: George Washington, Thomas Jefferson, Theodore Roosevelt eta Abraham Lincoln betiketuko zituen haitzean. Ku Klux Klaneko supremazista zuriengandik gertukoa zen Borglum eskultoreak pozarren hartu zuen bere gain obra hura diseinatu eta zuzentzeko ardura, interes ekonomikotik harago misio politiko garbia aitortu baitzion mandatuari. Bere hitzetan, "han, zerutik gertu" lau figura haiek tailatzeak geroari erakutsiko zion "zer nolako gizonak ziren nazioaren aita

haiek", eta ondorengoengana helaraziko omen zuen "euren ondarea".

Mount Rushmore National Memorial osatzeko lanak 1927an hasi (aurretik, 1925ean, monumentu nazional izendatua zuten) eta 1941ean amaitu zituzten. Orotara, 400.000 tona harri atera zituzten, horretarako igeltsuzko moldeak, mailu pneumatikoak eta dinamita erabiliz. Materiala eta langileak mendi magaletik abiatuta horman gora eta behera garraiatzeko, teleferiko bat eraiki behar izan zuten eta, besteak beste horregatik, hasierako 400.000 dolarreko aurrekontua motz geratu zitzaion. Hasiera batean proposatu zituzten gorputz osoko diseinuak hemezortzina metroko lau aurpegi izan ziren azkenean. Egitasmoak ekarpen pribatuetatik edan zuen hainbat urtez, harik eta 1933an Gobernuaren Parke Nazionalen Zerbitzuak kudeaketa eskumena bere egin zuen arte.

## BESTEREN LURRETAN

"Han, zerutik (zeru kristautik) gertu", zioen Gutzon Borglum artistak bere obraren kokapenaz. 'Han' ez da edozein leku, Black Hills edo 'muino beltzak' mendigunean kontzebitu baitzuten Mount Rushmore, Sioux nazioa osatzen duten tribuen (lakotak, dakotak eta nakotak) mundu ikuskerak sakratutzat duen inguruan. Ipar Amerikako jatorrizko herrien esku-bideen aldeko elkarteen eta autoritate tribalen aburuz, "indarkeriazko ekintza nabarmena eta berariazkoa izan zen sinbolo supremazista hori hor eraikitzea".



Hitz horiek berak baliatu zituen Julian *Bear Runner* lakota buruzagiak iragan uztailean, 2020ko Independentziaren Eguneko ospakizunen atarian, Donald Trump AEBetako presidenteari zuzenduriko eskakizun formalean: “Lapurtutako lurretan lau gizon zuri kolonizatzaileen omenezko gune bat sortzea mingarria eta iraingarria izan zen, lau presidente horiek indigenon aurkako genozidioan parte hartu zutelako. Neurri berean, uztailearen 4ko bezperan bertan abiazio erakustaldiak eta su artifizial festak ospatzeko asmoak iseka egiten die gure aldarri, baita gure osasuna arriskuan jarri ere”, pandemia bereziki gogor jotzen ari baita Hego Dakotako jatorrizko komunitateak. Ez zela ongi etorria ohararazi zion Oglala Sioux Tribe gobernu tribaleko *Bear Runner* buruak Trumpi, eta Black Hills eremuaren historia gogorarazi zion: “Bisitatzera zatozen lurraren okupazioa eta erabilera osoa Sioux nazioari dagokio 1851 eta 1868 urteetan sinatutako itun banaren arabera”. Gobernu Federalak bete ez zituen akordioak dira, 1870eko hamarkadan urrea eta eztainua aurkitu baitzituzten muino beltzetako errai eta erreka toetan. Ordura arte paraje haietara hurbildu ziren kolonien kopuru apala biderkatu egin zen bat-batean, milaka iritsi ziren, eta elkarbizitza ez zen baketsua izango aurrerantzean. Armadak natiboak kanporatu nahi izan zituen erreserbetan konfinatzeko, eta ahalegin horretan bufa-

lo guztiak akabatzea izan zen behin betiko estrategia, ez baitzuten lortu gerlariak batailan makurtzea. Jatekorik gabe, eta janzteko eta tipiak eraikitzeke larrurik gabe, baina, buruzagiek amore eman beste aukerarik ez zuten izan.

Erresistentziari eutsi zion azken taldea, *Big Foot*-en gidaritzapekoa, Wounded Knee-ko sarraskian hil zuen Zalditeriako Zazpigarren Erregimentuak, 1890eko azken hondarretan. Iturri batzuen arabera, 150 lagun erail zituzten tiroketan, 300 beste batzuen arabera; gehienak emakumeak, umeak eta zaharrrak. 1980an, Auzitegi Gorenak indigenei arrazoia eman eta AEBak behartu zituen 1.300 milioi dolar baino gehiago ordaintzera; baina tribuek ez dute onartu, euren lurak nahi dituzte, ez dirua. Egun, zortzi erreserbetan barreatuta bizi dira Hego Dakotako siouxak, estatu horretako populazioaren %9 baino ez dira.

Arbuioari muzin egin eta festa piroteknikoa nahiz agerpen publikoa berretsi zituen Donald Trumpek aurtengo Independentziaren Egunaren bezperan, Mount Rushmoren bertan. Beste gauza askoren artean, leku hark eta presidente haiek “Amerikako Iraultza” ordezkatzan dutela esan zuen, eta Thomas Jeffersonen Independentziaren aldeko Aldarrikapena eta Abraham Lincolnek esklabutza abolitu zueneko “Mendebaldeko zibilizazioaren milaka urteko historiaren gailurra” izan zirela. “Inork gutxi daki,



ordea, -ihardetsi zuen Julian *Bear Runner*-ek hedabideei egindako adierazpenetan- Lincolnek agindu zuela AEBetako historiako urkamendu masiborik handiena: Minnesota estatuan, 1862an altxamendu baten ostean 38 dakota kondenatu zituen. Silueta horiek gure arbasoen memoria profanatzan dute, eta leku hori desegiteko exijitzen dugu”.

### ESPERIENTZIA PATRIOTIKOA

Mount Rushmore National Memorial gune osoak 6 kilometro koadro inguruko azalera du, eta “esperientzia patriotikoa” eskaintzen die urtero hurbiltzen diren bi milioi bisitariei; horixe diote, behintzat, 50 kilometroko itzulginguruan dauden publizitate panelek. Souvenir eszentrikoen zerrenda amaigabea, oinezko ibilbideak, bisita gidatuak, terraza panoramikoak, jatetxeak, museoak, argazki zaharren erakusketa eta argazki sesioak, Thomas Jeffersonen jatorrizko errezeetan oinarritutako izozkiak, ekitaldiatarako anfiteatro bat, gaueko irteera bereziak, 56 estatueto banderen bilduma, gerrako beteranoentzako dohaintzak biltzeko eltzetxoak... Eta inguruko herrietan ere bai: presidenteei airetik eta hainbat perspektibatatik begiratu nahi dietenentzako helikoptero eta abioneta hegaldiak eskaintzen dituzten enpresak daude; zoologikoak ere badaude behinola baso haietan libre bizi izan ziren hartzak eta beste espezie batzuk hesien



atzetik ikusteko; meatzari herriak kasik parke tematiko bilakatuta ageri dira; eta dena da oso zuri-gorri-urdina.

Zurien heroiak loritzeko Disneyland modukoa da Mount Rushmore. Bertan ikusten, entzuten, egiten, erosten eta dastatzen den guztiak egiten dio erreferentzia presidente haien eta eraiki ei zuten nazioaren ustezko handitasunari, eta ezer ez da kasualitatea edo inuzentea. Txanponak zanpatu eta itxuraldatuta itzultzen dituen makinak ere badu izaera adoktrinatzaila hemen, Amerikako jatorrizko herritarrek eta haiei dagokien ezerk ez duelako lekuri ez aipamenik kontaketa honetan, ez bada irudi oso estereotipatuen bitartez eta 'zuriek salbatu eta zibilizatutako basatien' ideia hori elikatzeko.

### “AZAL GORRIDUNOK ERE BADITUGU HEROI HANDIAK”

“Aspaldian buruan dabilkidan kezka da hau. Agian lagun diezadakezu moduren batean? (...) Oso-osorik indiarroei dagokigun proiektua izango da, nire zuzendaritzapekoa, baina ardura nagusia da jakitea ea baten batek helduko ote dion gu falta garenean”. 1939an Korczak Ziolkowski eskultoreak Connecticuteko bere etxean jaso zuen eskuizkribuak *Standing Bear* lakota tribu-buruaren sinadura zuen, baina *Red Cloud*, *Spotted Crow*, *Fills The Pipe* eta *American Horse* liderrak ere bazeuden proposamenaren atzean. Gizon zuriak Mount Rushmoren egiten ari ziren beza-

la, eurek ere euren kontakizuna zizelkatu nahi zuten Black Hills-eko haitzetan. Zali Ero liderraren siluetak herri oso baten duintasuna ordezkatuko zuela pentsatu zuten, ahozko tradizioak sonatu bilakatu zituelako haren balentriak eta bake-itunak sinatzeko saiakerak, 1877an Fort Robinsonen (Nebraska) itzulpen kaskar batekin traizionatu eta adierazpen faltsu haien aitzakiapean erail zuten arte.

Poloniar etorkinen familia batean sortu zen Ziolkowski, baina jaiotze eta gutxira hil ziren aita-amak, eta umezurtz-etxe batetik bestera hazi zen. Nerabe zela itsasontzietan lanean hasi eta zurgin ofizioa ikasi zuen, sekula eskolara joan gabe. 30 urte pasatxo, 174 dolar bere izenean eta II. Mundu Gerra ate-joka zituen *Standing Bear* eta gainerako lider natiboen gonbidapena jaso zuenean. Zerbitzu eman eta gudarostetik itzuli zenean eman zien baiezkua; haien ametsa egikarituko zuten pertsona topatu zuten.

Artistak ahozko deskribapenetan oinarrituta marraztu zuen Zaldi Eroren omenezko diseinua, ez baitzen haren irudirik. Garaiko kronikek diote gerlariak beti ezezkoa eman ziela argazkilarien eskariei, sinesten zuelako erretratuak arimaren zatiak kenduko zizkiotela eta bizitza laburragoa izango zuela horregatik. “Itzala ere giltzapetu behar al didazue?”, esaten omen zien.

Black Hills mendien bihotzean beste granitozko horma ikusgarri bat auke-

ratu zuten buruzagiek, eta Ziolkowskik paretaren oinean akanpatuta pasatu zituen aurreneko zazpi lan hilabeteak. 1948ko ekainaren 3an lehenengo leherketa eginda, lider natiboen aitzinean, aurreneko 10 tona haitz atera zituzten. Proiektua finantzatzeko irabazi asmorik gabeko Crazy Horse Memorial fundazioa sortu zuten eta, orduz geroztik, donazio pribatuek sustengatu dituzte eskulturatzarra tailatzeko lanak ez ezik baita museoa eta campusa ere.

Korczak Ziolkowski 1982an hil zen, baina bere familiak hartu zuen lekukotza eta une honetan hiru dira fundazioaren helburuak. Batetik, monumentua bera amaitzea, gaur-gaurkoz Zaldi Eroren aurpegia besterik ez baitago tailatuta (ilea, enborra, besoak eta zaldia falta dira). Bukatutakoan, 172 metro luze eta 195 metro zabal izango dela diote planoek. Bigarrenik, mendi magalean bertan Ipar Amerikako Indiarren Museoa aberasten segitzea eta, honekin, jatorrizko herrien ondarea eta kultura bizia duintzen jarraitzea. Eta, hirugarrenik, Ipar Amerikako Unibertsitate Indiarra borobiltzea, nahiz eta aurreneko eskolak 2010eko ikasturtean abiatu zituzten.

Crazy Horse memorialean, *Standing Bear* eta gainerako tribu-buruaren ametsari jarraikortasuna emateko modu bateko edo besteko ekarpena egiten duten norbanakoei eta boluntarioei *story teller* esaten diete, historia kontalariak. ●